

**2008KO APIRILAREN 3AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO  
BATZARRALDIAREN AKTA.**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Hirua

**HILABETEA:** Apirila

**URTEA:** Bi mila eta zortzia.

**HASIERAKO ORDUA:** Goizeko bederatzia

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena.

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Hamazazpi (17)

**UDALBURUA:** Patxi Plazaola Muguruza

**BILDUAK:**

- Aitor Aldasoro Iturbe
- Malu Valles Fernandez
- Arantza Aseginolaza Azkargorta
- Arantza Gibelalde Iñurritegi
- Fernando Boada Gonzalez
- Alfonso Segade Gonzalez
- M<sup>a</sup> Pilar Vispo Chamosa
- Manuela Uranga Segurola
- Ana María Crespo Blanco
- Jon Kortaberria Lasa
- Joan Martin Aldaregia Etxebarria
- Josi Insausti Mujika
- Begoña Lasa Royuela
- Julene Hidalgo Pérez
- Julio Herreros Serna

**ETORRI GABEA:** Iñigo Arrese Artabe

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak ere parte hartu du.

**1.- AURREKO AKTA.** 2008ko otsailaren 28ko aktaren berri eman ondoren, Alkateak esan du eskaera eta galderen atalean, Murumendiko atezaina puntuan, "...Udaletxeko langile batzuei ere eskaini zaie lanpostu hori baina ezezkoa jaso dugu.", esaten duen tokian, ondorengo esan behar duela: "...Udaletxeko langile batzuei ere eskaini zaie lanpostu hori baina erantzunaren zain gaude".

Beste guztiek aktarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da 2008ko otsailaren 28ko akta, aipatutako aldaketarekin.

## **2.- XEHETASUN AZTERLANAK:**

a.- 29 Areako (Salbatore) B lursailaren Xehetasun Azterlanari behin betiko onespina ematea.

Aitor Aldasoro, hirigintza batzordeburuak proposamenaren berri eman du:

### **"HIRIGINTZA BATZORDEKO PROPOSAMENA**

**Gaia: Salbatore auzoko (29 Area) Barne Berrikuntza Egitasmo Bereziaren B lursailaren Xehetasun Azterlanari behin betiko onespina ematea.**

### **AURREKARIAK**

2008ko urtarrilaren 29ko datarekin Alkateak Salbatore auzoko (29 Area) Barne Berrikuntza Egitasmo Bereziaren B lursailaren Xehetasun Azterlanari hasierako onespina baldintzekin eman zion eta jendaurrean jarri zuen GAON, Diario Vascon eta Berrian iragarkiak 2008ko otsailaren 8an, urtarrilaren 31n eta urtarrilaren 30ean iragarkiak argitaratuz hurrenez hurren eta alegazioak aurkezteko hogeitaz laneguneko epean ez zen inolakorik aurkeztu.

Hasierako onespina ondorengo baldintzarekin eman zen: behin betiko onespina eman ahal izateko, Testu Bateratua aurkeztuko da planoak aldatuta eta azaleran aldaketak justifikatuta azaltzen dituen.

2008ko martxoaren 13an Testu Bateratu hori aurkeztu zen eta udal arkitektoak 2008ko martxoaren 17ko datarekin txostena eman du adieraziz ondo dagoela eta jarritako baldintzak betetzen dituela.

Horren ondorioz, batzorde honek Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

**Lehenik.** Salbatore auzoko (29 Area) Barne Berrikuntza Egitasmo Bereziaren B lursailaren Xehetasun Azterlanari behin betiko onespina ematea eta GAOn behin betiko onspenaren erabakia argitaratzea.”

Bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da.

b.- 3. Areako 3.1 eta 3.2 egikaritze unitateko (Bista Alai eta Igartetxe) Xehetasun Azterlanaren behin betiko onespina ematea.

Aitor Aldasoro, hirigintza batzordeburuak proposamenaren berri eman du:

### **“HIRIGINTZA BATZORDEKO PROPOSAMENA**

**Gaia: 3. Areako 3.1 eta 3.2 unitate Egikaritzeetako Xehetasun Azterlanari behin betiko onespina ematea.**

#### **AURREKARIAK**

2008ko otsailaren 15eko datarekin Alkateak 3. Areako 3.1 eta 3.2 unitate Egikaritzeetako Xehetasun Azterlanari hasierako onespina baldintzekin eman zion eta jendaurrean jarri zuen GAON, Diario Vascon eta Berrian iragarkiak 2008ko martxoaren 3an, otsailaren 19an eta otsailaren 16an iragarkiak argitaratuz hurrenez hurren eta alegazioak aurkezteko hogeitun laneguneko epean ez zen inolakorik aurkeztu.

Hasierako onespena ondorengo baldintzarekin eman zen: behin betiko onespena eman ahal izateko, Testu Bateratua aurkeztuko da txosten teknikoan adierazten diren xehetasunak jasoz.

2008ko otsailaren 21ean Testu Bateratu hori aurkeztu zen eta udal arkitektoak 2008ko otsailaren 26ko datarekin txostena eman du adieraziz ondo dagoela eta jarritako baldintzak betetzen dituela.

Horren ondorioz, batzorde honek Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

**Lehenik.** 3. Areako 3.1 eta 3.2 unitate Egikaritzeetako Xehetasun Azterlanari behin betiko onespena ematea eta GAO-n behin betiko onespeneren erabakia argitaratzea.”

Bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da.

**3.- KUTXA.** Kontseilariak izendatzea.

Alkateak ondorengo proposamenaren berri eman du:

**“ALKATETZAREN PROPOSAMENA**

2008ko martxoaren 5eko idatziaren bidez, KUTXA jakinarazi du Udalak elkartu ondoren (31 Udaleko 5 talde sortu dira), Beasain, Asteasu, Berastegi, Bidegoian, Astigarraga, Idiazabal, Zegama, Deba eta Ibarako udalek osatzen duten elkarteari 2 kontseilari izendatzea dagokiola.

Horren ondorioz, Alkatetza honek Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

**Lehenik.** Ondorengo ordezkariak, Kontseilari Orokorrak izendatzea:

**1. KONTSEILARIA / CONSEJERO 1:**

Titularra / Titular: **Juan Martin Aldareguia Echevarria** (Beasain-EA)

Ordezkoa / Suplente: **Aitor Lizarza Armendáriz** (Berastegi-EA)

## **2. KONTSEILARIA / CONSEJERO 2:**

Titularra / Titular: **Iñaki Amenabar Aramburu** (Asteasu-EA)  
Ordezkoa / Suplente: **Luis Ignacio Alonso Moretón** (Ibarra-EA)

**Bigarren.** KUTXAri erabaki honen berri ematea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

PPk ordezkariek esan du abstenitu egingo dela.

EB eta EAko ordezkariek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Fernando Boada González jaunak (PSE-EE/PSOE): “Nosotros en los dos plenos anteriores en los que se trató este tema, mostramos nuestra oposición y ahora tampoco estamos de acuerdo con la propuesta que se nos hace. Viendo la representación que tienen los diferentes grupos, después de las elecciones, nos parece que se está coartando a partidos que tienen más representación que otros. Sabemos que es un juego democrático y que cada uno puede buscar apoyos allí donde pueda negociar y conseguir, pero eso no quita para que nosotros denunciemos el sistema que se está utilizando de formar agrupaciones, porque nosotros como partido salimos perjudicados, y por eso votamos en contra”

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 10 (EAJ, EA, EB)  
Aurkako botoak: 5 (PSE-EE/PSOE)  
Abstentzioak: 1 (PP)

Horren ondorioz proposamena gehiengo absolutuarekin onartu da.

**4.- KONPROMISO AKORDIOA.** Beasaingo Udala eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta gizarte Gaietako Sailaren artean sinatzea proposatzen den konpromiso akordioa.

Alkateak ondorengo proposamenaren berri eman du:

## **HIRIGINTZA BATZORDEKO PROPOSAMENA**

**GAIA: BEASAINGO UDALA ETA ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILAREN ARTEKO KONPROMISO AKORDIOA**

Beasaingo Udala eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren arteko konpromiso akordioaren edukia aztertu ondoren, Hirigintza Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

**Lehenik.** Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailarekin sinatzea proposatzen den hitzarmenaren xehetasunei hasierako onespina ematea eta hogeit hamar eguneko epean jendaurrean jartzea, edukia osoa GAOn argitaratuz. Epe horretan alegaziorik ez bada izaten, hitzarmena behin betiko onartuta geldituko da.

**Bigarren.** Alkate jaunari aipatutako dokumentua sinatzeko baimena ematea.

**KONPROMISO AKORDIOA**

**ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA**

**ETA**

**BEASAINGO UDALA**

**GAIA:**

**BEASAINGO UDAL MUGARTEAN BABESTUTAKO ETXEBIZITZAK**

**SUSTATZEKO PROGRAMA**

**1 ESPARRUKO UE 1.1 BIRGAITZE INTEGRATUKO EREMUA**

**AU 42 MARIARATS**

**UGARTEMENDI ALDEA**

Gasteizen, 2007ko urriaren ....(a).

**B I L D U   D I R A**

**ALDE BATETIK**, Javier MADRAZO LAVÍN jauna, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua.

**ETA BESTETIK**, Patxi PLAZAOLA MUGURUZA jauna, Beasaingo Udaleko alkate-udalburua.

## **B E R T A R A T U D I R A**

Lehena, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburu gisa, eta haren ordezkari-lanetan.

Eta bigarrena, Beasaingo Udaleko alkate-udalburu gisa eta Udalaren ordezkari-lanetan.

Bi bertaratuek elkarri onartu diote Konpromiso Akordio hau egiteko beharrezkoa den legezko gaitasun nahikoa, eta horretarako, honako hau

## **A Z A L D U D U T E**

**LEHENA.-** Euskadiren Autonomia Estatutuaren 10.31 artikulua zera zehazten du: Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du lurraldearen eta itsasertzaren antolamenduaren, hirigintzaren eta etxebizitzaren arloetan.

Ildo horretan, 2005-2009 legealdirako Eusko Jaurlaritza eratzeko izenpetutako Koalizio Akordioaren helburu programatikoen artean, etxebizitza babestuen eskaintza handitzea bilduta dago, alokatuta lagatzeko gizarte-etxebizitzena nagusiki.

Hori bermatu ahal izateko, lurzoruaren kontrol publiko arduratsu eta eraginkorra lortu behar da, eta kontrol hori lurzoru publikoa eskuratu eta kudeatzeko ekintza

irmoarekin osatu beharko da. Hori dela-eta, botere publikoek (Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak eta Beasaingo Udalak, kasu honetan) batera esku hartu behar dute (eta horretara behartuta daude) beharrezkoak diren babes ofizialeko etxebizitzak egin ahal izateko baldintzak sortzeko, eta bizilekutarako beharrezkoa den eta espekulazioa eragotziko duen lurzoru-ondare publikoa eratzeko.

Helburu horrekin, bi Herri Administrazioek bi Lankidetzak Hitzarmen sinatu zituzten, 1994ko ekainaren 23an eta 1996ko irailaren 27an, AU 37 esparruan babestutako etxebizitzak sustatzeko.

**BIGARRENA.-** Era berean, bi erakunde publiko horiek aurreko idatz-zatian adierazitako alderdietan batera eta koordinatuta egin beharreko jarduna baieztatzeko eta berresteko, Autonomia Erkidegoak alde batetik, eta Toki Erakundeek bestetik, elkarren arteko harremanetan euren zereginak eraginkortasunez betetzeko behar duten lankidetzak eta laguntza aktiboa eskaini beharko diote elkarri, nork bere esparruan.

**HIRUGARRENA.-** 2007ko urriaren 16an Diputatu Kontseiluak onartutako eta 2007ko azaroaren 6an GAO-n argitaratutako Arau Subsidiarioen berrikuntza eta egokitze dokumentuaren Testu Bateratuak, beste gai batzuez gain, Birgaitze Integratuko Eremu bat birgaitzeko eta babestutako etxebizitzak egiteko aukera ematen du:

#### BIRGAITZE INTEGRATUKO EREMUA: 1 ESPARRUKO UE 1.1 EREMUA

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2007ko uztailaren 27ko Agindu bidez, eremu hori Birgaitze Integratuko Eremu izendatzeko espedienteak irekitzea adostu zen. Eremu horrek barnean hartzen ditu honako egoitza-eraikin hauek: Bideluze Plaza 2, José Martín Arana kalea 1, 2, 3, 4 eta 5, José Miguel Iturrioz kalea 2, 4, 6, 8 eta 10; gutxi gorabehera 125 etxebizitza biltzen dituzten higiezinak.

Beasaingo Udalak Birgaitzeko Plan Bereziaren dagokion dokumentua idatzi du, eta dokumentuak behin betiko onespina jaso du 2008ko urtarrilaren 31ko Udalbatzaren erabakiaren bidez.

Ondare Urbanizatua eta Eraikia Birgaitzeko jardun babestuei buruzko Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren arabera, behin betiko onespenez horren ondoren, esparru hori Birgaitze Integratuko Eremu izendatu ahal izango da, eta, beraz, ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko laguntzak handituko dira.

Birgaitze-lan horiek egiten diren bitartean legezko okupatzaileek aldi baterako horiek utzi beharko dituzte, eta birgaitze-lanak amaitzen direnean itzuliko dira.

Eremu horren eta ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko laguntzen hirigintza-kudeaketarako, bi Herri Administrazioek horretarako berariazko bulego bat ezartzea komeni dela uste dute. Bulego horren bitartez herritarrekin harremana erraztuko da eta baita garatu beharreko lanen koordinazioa ere. Ildo horretatik, Beasaingo Udalak horren kostu ekonomikoa bere gain hartzeko prest dagoela adierazi du.

#### AU 42 MARIARATS

2007ko azaroaren 14ko eskritura publikoaren bidez, Beasaingo Udalak AU 42 Mariarats eremuko lursail bat doan lagatu dio Euskal Autonomia Erkidegoari, eta lursail horretan babestutako 38 etxebizitza sustatzeko aukera dago.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak etxebizitza horien sustapena bere gain hartu du, babestutako alokairuko gizarte-etxebizitzaren erregimen juridiko eta ekonomikoaren arabera, eta, era berean, horiei lotutako hirigintza-lanen gauzatzea bere gain hartu du.

#### UGARTEMENDI ALDEA

Gutxi gorabehera 600 etxebizitza sustatzeko aukera ematen duen eta urbanizagarria den lurzoruko ekintza da. Etxebizitza horietatik 400 babes publikoko erregimen baten eraginpekoak izango dira.

Eremu horren hirigintza-kudeaketa garatzen den bitartean, hirigintza-jardunetik ondorioztatutako gainbalioetan komunitatearen partaidetza Beasaingo Udalari esleituko zaio legez.

Euskal Autonomia Erkidegoaren lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 39ko 2/2006 Legearen 27. artikuluan adierazitako akordioaren arabera, Beasaingo Udalak partaidetza hori babestutako etxebizitzaren sustapenean gauzatzeko interesa duela adierazi du, betiere horretarako aukera baldin badago.

Eremu horretan barne hartutako higiezin guztiak hitzartutako jardun-sistemaren araberrako hirigintza-kudeaketaren zain dauden hainbat ondasun partikularrei dagozkie.

**LAUGARRENA.**- Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, etxebizitzaren arloan dituen eskumenak baliatuz, babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko lurzoru behar du etxebizitzaren premia egiaztatua duten udalerrietan (eta, horien artean, Beasain), errenta-ahalmen txikia izanik etxebizitzaren merkatu librerara jotzerik ez duten familientzat.

Ildo horretatik, bi Herri Administrazioek lankidetzako politika egonkorra ezartzea komeni dela adierazi dute, epe laburrerako, ertainerako eta luzerako jardunak barnean hartzen dituen babestutako etxebizitzaren programa bat landuta.

Bi Herri Administrazioek komenigarritzat jotzen dute Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila lur horietan aurreikusitako babestutako etxebizitzaren sustapen berrietako batzuk gauzatzeaz arduratzea. Horretarako, dagokion lankidetzak-hitzarmenak idatzi eta sinatuko dira aurrerago, eta horiek erabakiko dute, besteak beste, higiezinaren eskualdatzea zein titulurekin egingo den. Hitzarmen horiek ondorengo adierazpen-ataletan ezarritako printzipioei jarraitu beharko diete.

Era berean, 1 Esparruko UE 1.1 Birgaitze Integratuko Eremuan hirigintza-kudeaketa erraztea eta sustatzea bidezko hartzen dute, AU 42 Mariarats eremuan sustatutako diren etxebizitza guztien esleipen-prozedura arrunta kenduta, eta horiek gordeta, birgaitze-lanak egiten diren bitartean beren etxebizitzak aldi baterako utzi behar dituzten legezko okupatzaileei birkokapena bermatzeko.

Birgaituko diren etxebizitzaren kopurua (125) eta sustatuko diren etxebizitzaren kopurua kontuan hartuta, birgaitze-lanak eta aldi baterako utzarazteak, behin behineko birkokapenak eta birgaitutako etxebizitzetara itzultzeak, fasetan gauzatu beharko dira.

**BOSGARRENA.-** Bien interesak, konpromisoak eta ekarpenak egoki bideratzeko, bi alderdiek Konpromiso Akordio hau izenpetu dute honako klausula hauen arabera:

## KLAUSULAK

**LEHENENGOA.-** Konpromiso Akordio honen helburua Beasaingo udal-mugartean babestutako etxebizitzaren sustapen-programa bat ezartzea da, zehazki AU 42 Mariarats eremuan eta Ugartemendi Aldean, eta baita, erakundeen arteko lankidetzaren esparruan, 1 esparruko UE 1.1 Birgaitze Integratuko Eremuaren hirigintza-birgaitzea eta birgaitze soziala sustatzea ere.

**BIGARRENA.-** Beasaingo Udalak Beasaingo 1 Esparruko UE 1.1 Birgaitze Integratuko Eremua Birgaitzeko Plan Bereziari behin betiko onespena eman ondoren, eta Ondare Urbanizatua eta Eraikia Birgaitzeko jardun babestuei buruzko Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren arabera, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak konpromisoa hartu du eremu hori Birgaitze Integratuko Eremu izendatzeko dagokion agindua emateko.

**HIRUGARRENA.-** Beasaingo Udalak eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, Ugartemendi Aldeari dagokionez, eta horren garrantzi estrategikoa kontuan hartuta, konpromisoa hartu dute Konpromiso Akordio honen garapenerako dagokion Lankidetzaren Hitzarmena kudeatzeko elkarrizketak egiteko. Lankidetzaren Hitzarmen horretan, besteak beste, eremu eta titulu horretan egiten diren sustapenak eta, hala badagokio, udal higiezinaren eskualdaketaren prezioa ezarriko dira, eta baita horiek ordaintzeko modua ere.

Era berean, eremu horren hirigintza-agente funtzioak betetzeko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren partaidetza VISESA sozietate publikoaren eta ORUBIDE partaideturiko sozietatearen bitartez egitea erabaki ahal izango da.

Eremu horietan egiten diren babestutako etxebizitzak erabiltzaileen hautaketa-eta esleipen-prozedurak gai horri buruzko indarreko araudiari jarraituko dio.

Ugartemendi Aldeko eremuan sustatuko diren etxebizitzak azalera-eskubideko erregimen tasatuko babes ofizialeko etxebizitzak, azalera-eskubideko erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak edota babestuta alokatzeko gizarte-etxebizitzak izango dira, eta horien erregimen juridiko eta ekonomikoa den adostasunarekin ezarriko da sustapenaren unean, Etxebizitzak Euskal Zerbitzuan izenpeturiko udaletako eskatzaileen ezaugarrien arabera.

Hala ere, bi Herri Administrazioek adierazi dute eremu horretan ezarri daitezkeen babestuta alokatzeko babes ofizialeko etxebizitza eta gizarte-etxebizitza guztiak sustatu behar direla.

**LAUGARRENA.-** I Esparruko UE 1.1 deituriko Birgaitze Integratuko Eremuari dagokionez, Beasaingo Udalak eremu horren hirigintza-kudeaketa sustatzeko konpromisoa hartu du, ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzea sustatzeko.

**BOSGARRENA.-** Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak konpromisoa hartu du AU 42 Mariarats eremuan babestuta alokatzeko gizarte-etxebizitzak erregimen juridiko eta ekonomikoko babestutako 38 etxebizitza sustatzearekin lotutako eraikuntzako eta hirigintzako lanak guztiz gauzatzeko.

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak sustapen honetako etxebizitza guztiak esleipen-prozedura arruntetik kanpo uzteko konpromisoa hartu du, 1 Esparruko UE 1.1 Birgaitze Integratuko Eremuaren hirigintza-kudeaketa gauzatzen den bitartean aldi baterako etxebizitzak utzi behar duten etxebizitzak legezko okupatzaileek behin-behineko birkokapenerako duten eskubidea bermatzeko.

Era berean, etxebizitzak eta lurzoruen arloan babes ofizialeko etxebizitzak erregimenari eta finantza-neurriari buruzko abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuan etxebizitzak esleipenari buruz ezartzen den araudia birgaitze-lan horien eraginpekoari aplikatzeko konpromisoa hartu du Sail horrek.

Birkokapenerako eskubide hori ziurtatzeko eta etxebizitzaren esleipenak gauzatzeko behar den dokumentazioa Beasaingo Udalak aurkeztu beharko du Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Gipuzkoako Lurralde Bulegoan.

Behin birgaitze-lanak eta aldi baterako utzarazteak, behin-behineko birkokapenak eta birgaitutako etxebizitzetara itzultzeak amaitu direnean, etxebizitzak Beasaingo udalerrian dauden eskaerak estaltzeko erabiliko dira, eta etxebizitzarik soberan geratzen bada, Eskualde Egiturako eskaerak betetzeko erabiliko dira.

**SEIGARRENA.-** Beasaingo Udalak erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenetan %95erainoko hobaria aplikatzeko konpromisoa hartu du, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Udal Zergan. Babestuta alokatzeko gizarte-etxebizitzaren sustapenei dagokienez, Zerga hori ordaintzetik hobaritzeko konpromisoa hartu du.

**ZAZPIGARRENA.-** Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak bere gain hartu dituen konpromiso guztiak, Konpromiso Akordio honetan zenbateko ekonomikoa zehaztu gabe dutenak, alde aurretik bidezko aurrekontu-izendapenak egin izanaren baldintzapean egongo dira.

**ZORTZIGARRENA.-** Bi Herri Administrazioek beharrezkotzat hartzen dute Akordioaren Jarraipen Batzordea eratzea. Batzorde hori erakunde bakoitzeko bi ordezkari osatuko dute, eta bere eginkizunak honako hauek izango dira: ezarritako aurreikuspenak eta konpromisoak gauzaraztea, horiek zorrotz betetzeko neurriak proposatzea, etxebizitza babestuen sustapenak egitean sor daitezkeen gatazkak eta/edo interferentziak konpontzea, sustapenen babes-erregimenak une bakoitzean dauden etxebizitza-premietara egokitzea eta/edo mailakatzea, edo birkokatzea, eta, oro har, etorkizunean sor daitezkeen gorabehera guztiei erantzutea.

**BEDERATZIGARRENA.-** Agiri honetan jasotako betebeharrak ez betetzea, kontratua deuseztatzeko arrazoa izango da, eta aldeak lehengo egoera juridikora itzuliko dira. Era berean, bai beste aldeari bai uste oneko besteri eragin ahal izan

zaizkien kalte eta galerak ordaindu beharko ditu aipatutako deuseztapena eragiten duenak.

Eta adostasuna eta uste ona erakusteko, dokumentu hau izenpetu dute lau aletan, idazpuruan adierazitako lekuan eta egunean.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

PPko eta EBko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Josi Insausti Mújica jaunak (EA): “Nosotros nos hemos posicionado más de una vez en relación al tema de la vivienda y ha quedado claro cual es nuestro posicionamiento. Ahora que tenemos este convenio de compromisos a nuestro entender hubiera sido suficiente presentar un convenio para el realojo de los vecinos afectados por la rehabilitación de la calle Arana, ya que todos somos conscientes de lo que va a conllevar es compleja operación en un entorno histórico y sensible del municipio. Pero en este convenio se presenta también lo relativo a la zona de Ugartemendi. Como he dicho antes es conocida nuestra postura respecto de la política de vivienda que debiera de impulsar el Ayuntamiento, desde el instrumento que tiene que es, Beasain Lantzen. Pero una vez más queda en evidencia que Beasain Lantzen viene gestionando aquellos compromisos que vienen de antes, como son los de promover y gestionar obras, especialmente la del polideportivo. A nosotros nos preocupa lo que en este convenio de compromisos se plantea. Queda muy bien determinado lo de la calle Arana, pero en lo referente al tema de Ugartemendi, en el texto del convenio se habla de intervenciones que se establecerán a corto, medio, largo plazo. A corto plazo entendemos que es lo de la calle Arana, a partir de ahí, la promoción de viviendas en Ugartemendi, no sabemos si quedan en el medio, a largo plazo o quedan sine die. Nos surge la siguiente pregunta: ¿en la firma de todos estos convenios, Beasain en qué marco de prioridades se va a encontrar respecto al conjunto general del País Vasco, cuando el Gobierno Vasco ha adquirido numerosos compromisos en muchos municipios para la promoción de vivienda pública?. Nosotros a la vez que el partido socialista hemos venido defendiendo la vivienda en alquiler. Ciertamente es que en el convenio de compromisos se hace referencia a la vivienda en alquiler, pero en ningún momento se establecen los criterios que van a regir para la promoción de la vivienda en alquiler. Lo que si se dice textualmente es lo siguiente: *“Ambas Administraciones Públicas, no obstante, manifiestan en este mismo momento su voluntad de impulsar la mayor promoción de vivienda de protección oficial y social en arrendamiento protegido que sea posible*

*implantar en este ámbito.*” La pregunta es: ¿Quién establece esas posibilidades?. Entiendo que el Ayuntamiento en este proceso debiera de tener un liderazgo especial en la política de vivienda a implantar. Aquí, desde el momento que hacemos esta cesión, intuimos que va a ser el gobierno el que va a establecer esas prioridades. Decía que lo que nos preocupa es el saber en qué lugar va a estar el municipio de Beasain dentro del conjunto de Euskadi en la política de vivienda que va a desarrollar el Gobierno, porque en la cláusula séptima se dice que *“los compromisos asumidos por el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco, no determinados en su cuantía económica en el presente Acuerdo de Compromisos, estarán supeditados a la existencia previa de las oportunas consignaciones presupuestarias.”* En consecuencia, no sabemos cuando verán la luz esas casas tan necesitadas. Tampoco sabemos qué modificaciones puede haber en el transcurso del procedimiento administrativo. Finalmente quisiera recordar que lo que posibilitó la aprobación de las recientes Normas Subsidiarias, fue el que el promotor de las viviendas libres también lo fuera el de las viviendas protegidas y que se simultaneara la ejecución de las mismas. Con este convenio parece que se olvida el espíritu de las Normas Subsidiarias, y nos metemos en una vía en la que no sabemos cuando tendrá salida. Más aún cuando tenemos el instrumento creado por este Ayuntamiento con el mismo objetivo, y que es Beasain Lantzen. Dicho todo esto parece que vamos a votar en contra, pero también somos conscientes de que la responsabilidad en todo esto es importante, y que esto va a tener mucho recorrido. Por ello, en aras del interés general y de los vecinos de la calle Arana y para que toda esa zona pueda quedar como todos deseamos, nos vamos a abstener.”

Fernando Boada González jaunak (PSE-EE/PSOE): “Antes de argumentar nuestro posicionamiento, quisiera saber si el acuerdo de compromisos que se presenta hoy, hace referencia al 10% del aprovechamiento que el Ayuntamiento tendría derecho en el Sector 3, Ugartemendi, o se hace mención al número de viviendas de protección oficial que habría que construir en ese Sector, ya que es diferente una cosa de otra.”

Alkate jaunak (EAJ): “Se hace mención en general al 10%, a la propiedad que el Ayuntamiento tiene en ese sector, y también a las posibilidades de adquisición de vivienda protegida.”

Fernando Boada González jaunak (PSE-EE/PSOE): “Nosotros en la comisión de urbanismo, ya expresamos que estábamos de acuerdo en lo relativo a la calle Arana y al realojo en Mariarats. Por eso también dimos el visto bueno a las bases para la contratación de la persona que se encargue de llevar adelante este tema. Lo que no entendemos es que en el mismo

convenio, deba ir lo del Sector 3, Ugartemendi, porque siendo consciente el Alcalde de que ahí podía no haber unanimidad, se podía haber presentado de manera separada, al objeto de que los grupos se pronuncien sobre cada una de las actuaciones. Nosotros no estamos de acuerdo con la propuesta de que las viviendas protegidas del Sector 3 se tengan que desarrollar por VISESA, porque el Ayuntamiento ya firmó en su día un acuerdo con el Gobierno Vasco para construir las viviendas del barrio Ezkiaga y por el motivo que fuera, tardaron 16 años en entregar esas viviendas. Podríamos estar en una situación parecida. En su momento se consideró necesario crear Beasain Lantzen para la promoción de vivienda pública, y una vez que se hacen las viviendas de Zapatari, deja de servir ese instrumento y lo utilizamos para construir el ambulatorio, pabellones industriales y zona deportiva. Sin embargo, su objeto inicial, nos lo cargamos o decidimos que no es interesante para esta operación, y pretendemos pasar la patata caliente al Gobierno Vasco, de manera que si no hay dinero para su desarrollo, la culpa siempre sería del Gobierno Vasco y no del Ayuntamiento.

No sólo esto, sino que cuando aprobamos las Normas Subsidiarias, que por cierto, aprobamos todos menos IU, uno de los puntos a propuesta de los partidos socialista y de EA, que se aceptó, era que se simultaneara la ejecución de las viviendas libres y las protegidas y se garantizara la habitabilidad conjunta de todas ellas. Si ahora el desarrollo de las viviendas se va a efectuar por dos organismos diferentes, no puedo garantizar que se desarrollen a la vez. Cuando aprobamos esto era porque queríamos que el promotor fuera el que estuviera obligado a hacer las viviendas libres y las protegidas a la vez. Con esto lo que estamos haciendo es eximirle de una obligación. Al igual que se hizo en Dolarea, vemos que en esta zona pretendemos hacer lo mismo. Podemos pensar que detrás puede haber un interés particular de que esto sea así, porque ya sabemos que a los promotores no les gusta nada hacer viviendas de promoción pública. No estamos de acuerdo en que sea el Gobierno Vasco el que tenga que hacer esas viviendas cuando tenemos instrumentos para hacerlo, máximo cuando en su día se nos dijo que era un instrumento más ágil y rápido. Nosotros votaremos en contra porque pensamos que aunque no saliera este tema, volvería al Pleno para que se aprobara lo relativo a la calle Arana y Mariarats.”

Alkate jaunak (EAJ): “Esta propuesta no es novedosa. Desde el principio de la legislatura se ha hablado de este tema. En el compromiso de gobierno que firmamos con EB, aparecía este compromiso y ahora estamos formalizándolo y haciendo realidad. Respondiendo a las dudas sobre la política de vivienda del Gobierno Vasco, creo que en este momento no debe de haberlas porque está dedicando y va a dedicar suficientes fondos para esas

promociones. Creemos que Beasain estará dentro de las primeras prioridades. Es un riesgo, pero si no nos arriesgamos nunca hacemos nada.

También el PNV, impulsó el tema de la simultaneidad, pero hay que decir claramente que el promotor difícilmente haría viviendas de alquiler porque su obligación se limita a viviendas protegidas con derecho a suelo o sin derecho a suelo. La vivienda de alquiler tiene dos elementos: la financiación y la gestión. Son dos elementos importantes que hay que tener en cuenta y que nos va a llevar a una reflexión conjunta durante bastantes meses sobre la actuación de Beasain Lantzen en la promoción de viviendas. Nuestra intención no es que Beasain Lantzen quede fuera de la política de vivienda, pero si tenemos que reflexionar sobre la financiación y gestión de las viviendas de alquiler.

Es verdad que durante dieciocho años se han retrasado las cosas con el Gobierno Vasco, pero en los últimos cinco años los compromisos adquiridos en Beasain se han cumplido estrictamente. Ahí están los frutos: casi 120 viviendas en la zona de Ezkiaga.

El riesgo entra en cualquier operación, pero si vemos que hay impedimentos, en cualquier momento podríamos revisar los compromisos adquiridos. La asignación de la tipología de viviendas que queremos, además de las legalmente establecidas, está en nuestras manos. Por otro lado se dice que será el Ayuntamiento de Beasain quien marque los criterios para la adjudicación de las viviendas. Ya hemos iniciado el proceso de Ugartemendi. Hemos tenido tres o cuatro reuniones y a LKS se le encomendó realizar el procedimiento urbanístico, que tardará tres o cuatro años para despejar el tema y empezar con la urbanización. También hablamos de cuatro o cinco años en la calle Arana, pero hay que empezar para que tengamos de aquí a cuatro o cinco años las posibilidades de desarrollo.

El riesgo existe, pero tenemos plena confianza en las relaciones mutuas y en que los compromisos se cumplan. Si en cualquier momento vemos que no se cumple será este Ayuntamiento el que decida.”

Josi Insausti Mújica jaunak (EA): “Esan duzu Beasaingo Udala izango dela irizpideak finkatuko dituen adjudikazioduna izateko, baina hitzarmenean ondorengo esaten da: *“El régimen jurídico y económico concreto bajo el que se promocionarán las viviendas del ámbito Sector Ugartemendi, esto es, viviendas de protección oficial de régimen tasado en derecho de superficie, viviendas de protección oficial de régimen general en derecho de superficie y/o viviendas sociales para su arrendamiento protegido, se determinará de común*

*acuerdo en el momento de acometer su promoción a la vista de las características de los demandantes del municipio inscritos en el Servicio Vasco de Vivienda.”*

Alkate jaunak (EAJ) :”Josi, esperientziak esaten digu, horrela izaten dela. Etxibideko zerrendak hartzen dira, baina erroldako irizpideak guk markatzen ditugu. Hori egin dugu Dolareako kasuan eta Hunolteko kasuan ere egingo dugu.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 8 (EAJ, EB, PP)  
Aurkako botoak: 5 (PSE-EE/PSOE)  
Abstentzioak: 3 (EA)

Aldeko botoen kopurua aurkakoa baino gehiago denez, onartu egin da proposamena.

**5.- TERRENOA LAGATZEA.** Arangoiti Fundazioari terrenoa lagatzea.

Alkateak ondorengo proposamenaren berri eman du:

### **“HIRIGINTZA BATZORDEKO PROPOSAMENA**

**Gaia: terrenoa lagatzea.**

#### **AURREKARIAK**

